

Donostia, 2023ko otsailaren 16a


16/23 PRENTSA OHARRA

DBIZI-RI BURUZKO 2022KO DATUEN TXOSTENA

2022an, bidaien bilakaeran nabarmena izan da eskariek izan duten igoera, aurreko ekitaldiarekin alderatuta oso handia izan baita. Zehazki, 2022an **787.963 bidaia** erregistratu dira, eta pasa den urtean, berriz, 488.284 izan ziren, hau da, **%62 inguruko hazkundera** erregistratu da. Horrek esan nahi du **96.010 km** egin direla, hau da, batez **beste 263 km egunean**. Aurreko urtean 74.684 km egin ziren, batez beste 205 km egunean.

2022an, joera berdina izan da abonatu motari dagokionez, eta **urteko iraupena duen banakako abonatu arrunta** nagusitu da.

Hilabeteko iraupena duten **noizbehinkako abonuek, banakakoek zein taldekoek**, presentzia handiagoa izan dute **uztailetik irailera bitartean**.



Erabilera datuen azterketa:


Kopuruek adierazten dutenez, jendeak oraindik ere argi eta garbi nahiago du **bizikleta elektrikoa**, 2022an erregistratutako **bidaien %56,64** bizikleta elektrikoan egin dira-eta.

Bizikletak gehien erabili ziren eguna **irailaren 22a** izan zen, **3.667 bidaia** egin ziren-eta.

Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea Dbiziko bizikletetan egindako bidaia bakoitzaren batez besteko **iraupena** 12 minutu eta 10 segundokoa izan dela, hau da, oraindik ere **15 minutu baino gutxiagokoa** da, aurreko urtekoaren oso antzekoa.

Bidaien %97,3 izan dira 30 minutu baino gutxiagoko iraupenekoak.

Dbiziko erabiltzailearen profilari dagokionez, **generoaren arabera banaketa egonkor** mantendu da **denboran**. Izan ere, erabiltzaileen %52,5 gizonak izan dira eta %46,9 emakumeak. Abonatuen batez besteko adina, berriz, 42 izan da, eta pasa den urtean 41.



Azkenik, grafiko honetan adierazten da zein den bizikleten erabilera adin tarteen arabera, eta 2021eko eta 2022ko datuak konparatzen dira. Azpimarratzekoa da 16-17 urte bitarteko adin tartean bizikleten erabilera murriztu egin dela. Aitzitik, 26 eta 35 urteko adin tartean bizikleten erabilera handitu egin da.

Informazio gehiagorako, begiratu www.dbizi.eus webgunean edo galdetu 943 060 888 telefonoan.

